

Azoka solidarioa eta Fabore enkantea. Etorri eta Ekarri Eskolara!

Beste urte batez, egun hauek hurbiltzen ari diren honetan, Hizkuntza Eskola Ofizialak Azoka solidarioa antolatuko du. Aurten, bigarren aldiz, Fabore enkantea ere egingo dugu. Bi ekintzen helburua GKE bati edo proiektu solidario bati laguntza ekonomikoa ematea da eta Eskolako hezkuntza-komunitateko kide guztien artean aukeratuko dugu, administrazio eta zerbitzuetako langile, irakasle eta ikasleen artean, hain zuzen. Erakunde horri lortutako dirua emango diogu.

Hasteko, gehiago erabiliko ez duzun **materiala uzteko eskatzen dizugu**: ziur jadanik irakurri duzun liburu bat duzula, edo gainditutako ikasturteren bateko testuliburu bat, aldizkariak...Azoka egin baino lehen **Atezaintzan** utzi besterik ez duzu egin behar. Ekarri zure materiala Eskolara! Azoka egiteko zure laguntza behar dugu eta.

Jarduera bakoitza zertan datzan azalduko dizuegu:

1. Azoka solidarioa

Abenduaren 16an eta 17an, goizez eta arratsaldez, Eskolan salmenta-postuak egongo dira, non hainbat hizkuntzako materiala (CDak, DVDak, testuliburuak, aldizkariak, nobelak, eta abar.) oso prezio merkean salduko den. Aurten, COVID-19 dela eta, ez da egingo ohiko lekuan, beheko solairuaren sarreran, baizik eta Areto Nagusian, Eskolako eremu berrian.

Postu horietaz arduratzeko, Eskolako irakasle eta langile anitz boluntario arituko dira, normalean ordubetez. Ikasleei ere onbideko ekintza horretan laguntzeko eskatu nahi genizueke. Animatzen bazarete, idazkaritzan izena eman dezakezue hoberen datorkizuen egun eta orduan.

2. Fabore enkantea

Abenduaren 13a arte, web orrian agertuko den Googleren formulario baten bidez jasoko dira zuen eskaintzak. Jardueraren helburua da modu boluntarioan gure denbora ematea zerbitzuren bat eskaintzeko edo interesa duen beste pertsona bati faboreren bat egiteko. Adibidez, karikaturak egiten dakien norbait, edota Spotify-ko zerrenda bat partekatzen duena, patinatzen irakats dezakeena, hostopil-tarta egiten dakiena, zurekin Beriainera igoko dena, ordubeteko ingelesezko mintzapraktika eskaintzen duen irakaslea, eta abar. Horren truke jaso nahi duzuen zenbatekoa adierazi behar da. Zuen harremanetarako datuak eta zer ordutan egin zenezaketan ere jarri beharko duzue.

Azoka solidarioa egiten den egunetan, abenduaren 16an eta 17an, ohol batean jarriko da eskaintzen diren jardueren zerrenda. Eskaintzak ikusi eta bat erosi besterik ez duzu egin behar. Jardueraren zenbatekoa aukeratu dugun elkarterako dohaina izango da.

Eskaintza egin zuen pertsonarekin harremanetan jarri eta entregarako edo proposatutako jarduera elkarrekin egiteko hitzordua adostea baino ez zaizu faltako. Kontuan izan behar da atzeratu egin dezakezuela, COVID-19 dela eta.

Pentsatu zuen laguntza eta parte-hartzea oso garrantzitsuak direla edozein elkartetarako. Anima zaitzake parte hartzera!
Eta ez ahaztu, mesedez, **ekarri erabiliko ez duzun materiala Eskolara!**